

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO ETA UGT SINDIKATUEK GREBA DEITU DUTE OSAKIDETZAN MAIATZAREN 18 ETA 19AN

Osakidetzak bizi duen egoera larria eta negoziazioaren blokeoa ikusita, Sagardui Sailburuari eskatzen diote Mahai Sektorialera joateko, eta abenduaren 7an egindako bileran egin zizkioten planteamenduei erantzuteko.

Otsailaren 25eko manifestazio jendetseen ondoren (zalantzarik gabe, langileak eta herritarra gogaituta daudela erakutsi zuten manifestazio horiek), SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek baiezttatu dute Osasun Saila ez dagoela prest bere bidetik apur bat ere aldentzeko. Gutxitan ikusi dugu hainbeste jende kalean osasungintza publikoaren defentsan, baina Osakidetzak gor eta mutu jarraitzea erabaki du kaleko aldarriaren aurrean.

Behin eta berri salatu dugun bezala, Lehen Arretaren desegitea eta gainerako arreta-mailen prekarizazioa errealityate bat da, eta errealityate horren ondorioz, Osakidetzako langileek gero eta baldintza prekarioagoetan egiten dute beren lana; eta gero eta prekarioagoa da herritarrei eskaintzen zaien arreta ere.

Lehen Arretaren egoera bereziki larria da. Profesionalen faltaren mantra aitzakia ezin hobea bihurtu da Osakidetzak beste egoera batzuetan justifikatzen oso zailak izango liratekeen neurriak abian jartzeko. Gaurkotasun osoa dute Sagardui sailburuak udan esan zituen hitzek, kultura berri bati buruzkoak. Horren atzean murrizketak daude. Izan ere, argi eta garbi esan behar dugu Osakidetzak ez duela, Lehen Arretarako, beste planik murrizketak egiten jarraitza baino. Horrela, Zumarraga, Deusto edota San Martin bezalako EAGen itxierak eta murrizketak mantentzen dira; Lehen Arretako ordutegien murrizketa urte osora zabaltza planteatzen da (orain arte oporraldietan aplikatzen zen murrizketa hau); errealityate bat dira medikurik gabe irekitako EAGak; eta abar. Datozen urteetan izango diren erretiroek egoera okertuko dute, eta Osakidetzaren plana da horren aurrean ezer ez egitea.

Bitartean, plantillaren egoera gero eta prekarioagoa da: plantillaren ia erdia behin-behinekoa da, eta horrek esan nahi du, EPE bat bestearren atzetik egiteaz gain, ez dutela gutxieneko egonkortasunik beren kontratuetan; lanpostu asko hutsik uzten dira erretiroen ondoren; ez dira bajak eta bestelako absentziak betetzen; lan-gainkarga sistematikoa dago kategoria guztietan; hautaketa-prozesuak solapatu egiten dira, eta, ondorioz, langileak aldi berean hainbatetan daude murgilduta; egutegian eta lan-karteldegietan aldaketa izaten dituzte etengabe; eta abar luze bat. Osasun Sailak ez du neurri bakar bat ere proposatu plantillaren lan-baldintzak hobetzeko. Ez dago profesionalak Osakidetza mantentzeko edota erakartzeko planik. Are gehiago, langileen tratu txar sistematikoa dago.

Testuinguru horretan, Mahai Sektorialak erabat blokeatuta jarraitzen du. Osakidetzak aldebakarreko erabakiak hartzeko izapide huts bihurtu du foro hori: bilerak deitzen ditu, gaiak

Mahai Sektorialetik pasatzeko lege-izapidea betetzeko helburu bakarrarekin, alde bakarreko erabakiak hartzen jarraitu ahal izateko. Sindikatuek planteatutako gaiak tratatzeari eta negoziatzeari uko egiten dio sistematikoki.

Ildo horretan, gogoratu behar da, sindikatuek eskatuta, abenduaren 7an bilera bat izan zutela Osasun Sailarekin. Harrezkero, Osakidetzako Zuzendaritzak behin baino gehiagotan adierazi du orduan planteatutako hainbat gai Sailburuaren esku daudela oraindik. Hori guztia ikusita, Mahai Sektorialeko sindikatuek mahaira joateko eta egindako planteamenduei erantzuteko eskatzen diote Sailburuari.

Hori guztia ikusita, argi dago Osakidetak mobilizazioetako bidea besterik ez digula uzten. Horregatik, SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek erabaki dugu greba deitzea Osakidetza osoan maiatzaren 18an eta 19an. Osasun Sailari eskatzen diogu honako aldarrikapen hauei erantzuteko:

1. 18-19 EPEa ebaztea, 2020-21-22 EPEko azterketak egin aurretik. Azken horretan, meritu lehiaketa-fasea ebatzi dezala, oposizio-lehiaketaren aurretik.
2. Hautaketa eta esleipen prozesuak arintzeko, giza baliabideen eta baliabide materialen hornidura: kontratacio-zerrendak, eskaintza telematikoa, lekualdatze-lehiaketa, etab.
3. Urtebetetik gorako behin-behineko kontratu guztiei kodea ematea; eta plangintza zehatza egitea, behin-behinekotasuna % 8tik behera jaisteko.
4. 2010etik galduztako erosteko ahalmena berreskuratzea eta %4ko osagarria ordaintzea hori kobratzen ez duten langileei.
5. Lan-baldintzak eta hauteskunde-esparruak arautzen dituen akordio berri bat berehala negoziatzea.
6. 2022. urteko Garapen Profesionalaren berehalako deialdia; eta Garapen Profesionalaren azken zirriborroa erretiratzea, kategoria guztien berezitasunak kontuan hartuko dituen ebaluazio-eredu berri bat negoziatuz.
7. Lehen Arretarako inbertsioa handitzea, ratio duinekin kategoria guztiitarako, eta hori guztia kalitatezko arreta presentziala bermatzeko.
8. Ordaintzen diren osagarriak berrikustea eta eguneratzea arreta maila guztietai: sakabanatze geografikoa, produktibitatea, guardiak, etab.
9. Lanaldiari egokitutako karteldegia, familia-kontziliazioa sustatuz eta bermatuz, alde bakarreko aldaketarik gabe.

Gure osasun publikoaren arazoak egiturazkoak eta pandemiaren aurrekoak dira, eta berehalako konponbide sakonak behar dira horiek konpontzeko. Osakidetzari eta Osasun Sailari borondate politikoa eskatzen diegu, propagandaz gain, osasun publikoa benetako lehentasun bihurtzeko.

Euskal Herria, 2023ko martxoak 29.



SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO Y UGT CONVOCAN HUELGA EN OSAKIDETZA LOS DÍAS 18 Y 19 DE MAYO

Ante la grave situación que atraviesa Osakidetza y el bloqueo de la negociación, solicitan a la Consejera Sagardui que acuda a la Mesa Sectorial y dé respuesta a los planteamientos que le hicieron en la reunión celebrada el pasado 07 de diciembre.

Tras las multitudinarias manifestaciones del pasado 25 de febrero, que sin duda fueron una buena muestra de hartazgo de la plantilla y la ciudadanía, los sindicatos SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO y UGT hemos podido constatar que el Departamento de Salud no está dispuesto a apartarse ni un ápice de su hoja de ruta. Pocas veces hemos visto a tanta gente en la calle en defensa de la sanidad pública, pero Osakidetza ha optado por mantenerse sorda y muda ante el clamor social de la calle.

Tal y como hemos denunciado de manera reiterada, el desmantelamiento de la Atención Primaria y la precarización del resto de niveles asistenciales son una realidad, realidad que hace que la plantilla de Osakidetza realice su labor en condiciones cada vez más precarias, como es cada vez más precaria también la atención que se ofrece a la ciudadanía.

La situación de la Atención Primaria es especialmente preocupante. El mantra de la falta de profesionales se ha convertido en la excusa perfecta para que Osakidetza ponga en marcha medidas que, en otras circunstancias, serían muy difíciles de justificar. Hoy cobran plena actualidad las palabras que la Consejera Sagardui pronunció el verano pasado en las que hablaba de una nueva cultura, cuando en realidad estaba hablando de recortes. Y es que, tenemos que decir alto y claro que Osakidetza no tiene más plan para la Atención Primaria que seguir recortando. Así, se mantienen los cierres y recortes en PACs como Zumarraga, Deusto o San Martín; se plantea extender a todo el año la reducción de horarios en Atención Primaria, reducción que hasta ahora se

aplicaba durante los períodos vacacionales; ya son una realidad los PACs abiertos sin contar con personal médico; etc.... Las jubilaciones que se van a producir los próximos años van a empeorar esta situación, y el plan de Osakidetza es no hacer nada al respecto.

Entretanto, la situación de la plantilla es cada vez más precaria: casi la mitad de la plantilla es temporal, lo que supone que, además de hacer una OPE tras otra, no cuenten con un mínimo de estabilidad en sus contratos; muchos puestos se dejan vacantes tras las jubilaciones; no se cubren bajas y otras ausencias; hay una sobrecarga sistemática de trabajo en todas las categorías; se solapan los procesos selectivos de manera que los profesionales se ven inmersos en varios a la vez; sufren permanentes cambios de calendario y carteleras de trabajo; y así un largo etcétera. El Departamento de Salud no plantea ni una sola medida encaminada a mejorar las condiciones laborales de la plantilla. No hay ningún plan para retener a los profesionales y atraer a otros. Es más, existe un maltrato sistemático a la plantilla.

En este contexto, la Mesa Sectorial sigue absolutamente bloqueada. Osakidetza ha convertido este foro en un mero trámite para sus decisiones unilaterales: convoca reuniones con el único objetivo de cumplir el trámite legal de que las materias pasen por la Mesa Sectorial, para poder seguir adelante con sus decisiones unilaterales. Se niega de manera sistemática a tratar y negociar las cuestiones planteadas por la parte sindical.

En este sentido, cabe recordar que, a petición de los sindicatos, el 07 de diciembre mantuvieron una reunión con la Consejería. Desde entonces, la Dirección de Osakidetza ha referido en varias ocasiones que, diversas cuestiones de las planteadas entonces, siguen en manos de la Consejera. A la vista de todo ello, los sindicatos de la Mesa Sectorial exigen a la Consejera que acuda a la Mesa y dé respuesta a los planteamientos que se le realizaron en aquella reunión.

A la vista de todo lo señalado, es evidente que Osakidetza no nos deja más camino que el de la movilización. Por ello, los sindicatos SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO y UGT hemos decidido convocar huelga en toda Osakidetza los días 18 y 19 de mayo. En este sentido, exigimos al Departamento de Salud que atienda las reivindicaciones siguientes:

1. Resolución de la OPE 18-19 previa a la realización de los exámenes de la OPE 2020-21-22- E. En esta última, resolución de la fase de concurso con carácter previo al concurso oposición.
2. Dotación de recursos humanos y materiales para agilizar los procesos de selección y provisión: listas de contratación, oferta telemática, concurso de traslados, etc...
3. Dotar de código a todos los nombramientos eventuales superiores a un año; y planificación concreta y calendarizada para bajar la temporalidad por debajo del 8%.
4. Recuperación del poder adquisitivo perdido desde 2010 y el abono del complemento del 4% a los y las trabajadores/as que no lo perciben.
5. Negociación de manera inmediata de un nuevo Acuerdo regulador de condiciones de trabajo y de ámbitos electorales.

6. Convocatoria inmediata de la carrera profesional pendiente del año 2022; y retirada del último borrador de Desarrollo Profesional, negociando un nuevo modelo de evaluación que tenga en cuenta las particularidades de todas las categorías.
7. Aumentar la inversión en la atención primaria con ratios dignos para todas las categorías; y ello para garantizar una atención presencial de calidad.
8. Revisión y actualización de los complementos retributivos en todos ámbitos asistenciales: dispersión geográfica, productividad, guardias, etc...
9. Carteleras ajustadas a jornada promoviendo y garantizando la conciliación familiar, sin cambios unilaterales.

Los problemas de nuestra sanidad pública son estructurales y anteriores a la pandemia y requieren de soluciones inmediatas y de calado. Exigimos a Osakidetza y al Departamento de Salud voluntad política para, más allá de la propaganda, convertir la sanidad pública en una verdadera prioridad.

Euskal Herria, 29 de marzo de 2022.